

Galdera

Aditz trinkoekin puntukaritasuna adierazteko 'ari izan' aditz-lokuzioa erabil daiteke? Adibidez: 'nator' erabili beharrean 'etortzen ari naiz' edo 'noa' erabili beharrean 'joaten ari naiz'?

Erantzuna

Gure iritzian, ez dira gauza bera *badator* eta *etortzen ari da*.

Lehenengoa puntukaria da, eta bigarrenak zentzu jarraikorra du, progresiboa, alegia.

1/ Forma trinkorik ez duten aditzetan, puntukaritasuna adierazteko, *ari izan* perifrasi-multzoa erabil daiteke. Ikus dezagun [Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna](#) (269-270 or.):

«Adizki trinkoek nolabaiteko parekotasuna erakusten dute *ari izan* itzuliarekin: "*Mikel dator*" eta "*Mikel josten ari da*" izango genituzke alde horretatik parekoak.

... hau ez da beti betetzen. Gerta baitaiteke, esaterako, adizki trinkoek ondoan *ari izan* forma ere izatea:

(32) ***badator*** itsasontzia / *jendea uholdeka etortzen ari da*.

Ez dago batere garbi zein diren forma horien guztien artean dauden desberdintasunak».

2/ Ikus dezagun orain [Euskal Gramatika - Lehen Urratsak II](#) (408 or.) (ikus orri-oineko oharrean * eta ? ikurren balioa):

... **jarraikorra** eta **puntukaria** adibide hauetan kontrajar ditzakegu:

- (20) a. Patxi autobusean dator orain
b. ?Patxi autobusean etortzen ari da orain
c. *Patxi autobusean etortzen da orain
d. Patxi etxean sartzen ari da orain
e. "denbora" hitza latinetik dator
f. *" denbora" hitza latinetik etortzen ari da
g. *" denbora" hitza latinetik etortzen da
h. "denbora" hitza tempus, temporis hitzetik deribatzen da

(439 or.) ekintza edo egoera galdegai dela adierazteko *ari izan* forma elkartuarekin perifrasi eginez erabiltzen da:

- (7) a. mutiko hori ez da egurra eramaten ari, ekartzen baizik
b. **auto hura ez da joaten ari, etortzen ari da**

Beste modu horiek bizkaierazko **ibili dabil**, **etorri dator** eta antzekoen pareko esangura dute.

3/ Beste adibide batzuk (jarraikortasuna adierazten duten egitura progresiboak):

- ... **beretara etortzen ari da** ([Arian ari - Patxi Zabaleta](#))
- Ibaiaren urak pixkanaka **lehenera etortzen ari dira** ([regenerar - Elhuyar hiztegiak](#))
2 v.prrl. [leheneratu](#), lehenera etorri, onera etorri - *las aguas del río se van regenerando poco a poco*
- **jendea multzoka etortzen ari da**" ([Indikatiboaren aditz-aldiak \[Sareko Euskal Gramatika\] \(ehu.eus\)](#)).
- *Baina *jendea lasai egoten ari da, *Mikel poliki etortzen ari da.*
- *badator* autobusa vs. **jendea etortzen ari da** ([24569.pdf \(euskaltzaindia.eus\)](#) EGLU II 157)
- **bere onera etortzen ari da** ([Susa literatura - Aspaldiko lagunen bisita](#))
- **Denborarekin kolorea joaten ari zaio** liburuari
- Bihotzak ematen zidak, gauzak bere onera **etortzen ari** direla ([Gotzon Garate - Elizondoko eskutitzak \(armiarma.eus\)](#))

4/ Gehiago jakiteko:

- [Euskal gramatika laburra: perpaus bakuna](#)
- [Euskal Gramatika - Lehen Urratsak II](#)
(2. ataleko azalpenak osorik dituzu 407. orrialdetik aurrera: 14.2.3.1.2. Aspektu mugapenak)
- [OEH - Bilaketa - OEH \(euskaltzaindia.eus\)](#)
- [Egitura progresiboak: -t\(z\)en ari izan/ibili/egon/jardun \(ehu.eus\)](#)

Oharra: Izartxoak (*) adierazten du ez dela gramatikala. Galdera-ikurrak (?) adierazten du zalantzakoa dela.